

ATHLETIC CLUB

# ESKU-LIBURUA ATHLETICKET

## TXARTEL DIGITALA - ATHLETIC CLUB

# LEHENENGO URRATSA

## NIRE TXARTEL DIGITALA







1. Deskargatu “Athleticket” aplikazioa Google Play edo App Store-tik.

2. Hasi saioa zure bazkide-kodearekin eta sartu zure pina.

# SARTU ZELAIRA ZURE MUGIKORRAREKIN

## NIRE TXARTEL DIGITALA







Sakatu zure txartelaren gainean, atzealdean zure jesarlekuaren kokapena eta QR kodea ikusteko.

# SARTU ZELAIRA ZURE MUGIKORRAREKIN

## NIRE TXARTEL DIGITALA



Kodea partida baino 2 ordu lehenago aktibatuko da, zelaira sartzeko.



Hurbildu kodea tornuaren irakurgailura.



Sartu zelaira!

# LAGA ZURE TXARTELA BESTE PERTSONA BATI

## NIRE TXARTEL DIGITALA




1

“Txartel lagapena” atalean, hautatu txartela zein partidarako laga nahi duzun.

Denboraldiko edozein partida hauta dezakezu.



2

Hautatu “Laga beste pertsona bati”.







3

Aukera eta sartu bere izena eta e-posta helbidea.

4

Mezu elektroniko bat bidaliko diogu jarraibideekin, horrela, kode baten bidez, zure txartel digitala erabili ahal izateko.



Kode hori aldi baterako egongo da indarrean, partida horretarako soilik.

Lagapena partida aurreko 2 ordu lehenagora arte ezeztatu ahal izango duzu, partida horretan sakatuz. Guk bidaliko diogu e-posta bat interesatuari, ezeztatzearen berri emanez.



# TXARTEL BAT LAGA DIDATE

## ERREGISTROA




Deskargatu aplikazioa Play Store edo Apple Store bidez, edota bidali dizugun mezuan jasotako loturaren bidez.

Lagapena jaso duzun helbide berarekin erregistratu behar zara, edo mezuan bidali dizugun gonbidapen-kodea sartu.

Zure posta elektronikoko helbidea erregistratuta badago baina ez badakizu pasahitza zein den, hemen dituzu jarraibideak, berri bat lortzeko.



# TXARTEL BAT LAGA DIDATE

## SARBIDEA

Behin saioa hasita, onartu edo baztertu gonbidapena. Guk bidaliko diogu mezu bat bazkideari, informazioa emateko.






Laga dizuten kodeak aipatzen den partidarako soilik balio du eta hasi baino bi ordu lehenago aktibatuko da.

Hurbildu kodea tornuaren irakurgailura eta sartu zelaira.



# BESTE FUNTZIONALITATE BATZUK




## EGUTEGIA

Kontsultatu partida guztiak egutegiaren bidez.

## NIRE KONTUA

Editatu zure sarbide-datuak. Kudeatu zure kontuaren segurtasuna.



# BESTE FUNTZIONALITATE BATZUK




## ESTADIOA

Aurkitu zure jesarlekua estadioaren planoan.

## ONLINE DENDA

Ikusi online dendako eskaintza eta nobedade guztiak.



# INFORMAZIO OROKORRA

- Ezin izango dute txartel laga honakoek:
  - Partida horretarako "Haurrentzako sarrerak" eskatu dituzten bazkideek.
  - Gazte Abonoek.

- ATHLETICKET aplikazioaren bidez, hainbat txartel kudeatu ahal izango dituzu, betiere, txartel bakoitzeko erabiltzaile batekin hasten baduzu saioa. Horrela, zure bazkide txartela kudeatzeko, zure kode eta PINarekin erregistratuko zara, baina gonbidapen bat jasotzen baduzu, dagokion e-postarekin erregistratu beharko zara.

- Edozein gertakari badago, hurbildu San Mameseko leihatila nagusietara.

- Zerbitzu hori irabazi asmoekin erabiliz gero, zerbitzua modu iraunkorrean blokeatuta geratu liteke bazkidearentzat, baita bere txartela ere.

- Lagapen bakoitza gure datu-basean erregistratuta geratuko da.

- Edozein zalantza edo kontsulta baduzu, jarri gurekin harremanetan.


ATHLETIC CLUB